



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Osteguna
2010-07-15**

VIII. URTEA 2.052. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Atzo inauguratu zuten udal arduradunek berritutako Lizardi plaza edo 'Patinen pista'. A. IMAZ

GAZTEEN ETA HELDUEN TOPALEKU BERRIA

TOLOSA Lizardi plaza berrituan kirol instalazioak jartzearekin batera argitze sistema eta irisgarritasuna ere egokitu dituzte

Antzerkia eta jazzarekin gozatzeko aukera izango da bihar, Gau Giroren baitan

TOLOSA Plaza Berrian 'Romeria a Santiago' ikusi ahal izango da eta Fronton kafetegian, berriz, Mikel Andueza eta Iñaki Salvadorren emanaldia z

Sanjoanetako emanaldiaren ondoren abesbatzak aurrera jarraitzeko asmoa azaldu du

ABALTZISKETA Udalak antolatutako ikastaro bati esker hasi ziren kantuan; irakaslea eta zuzendaria Marian Garcia-Gango madrildarra dute 6

Behe solairuetan etxebizitzak egiteko aukera

AMEZKETA Fernando Amezketarraren plazaren parean izan ezik, herriko behe solairuetarako baimena eskatu ahal izango da 7

Gaur irekiko ditu ateak 14. Garagardo Azokak

VILLABONA Irrintzi elkarteak antolatu du eta aurten 12.000 litro garagardo ekarri dituzte; afaltzeko lekua 900 lagunentzat prestatu dute 4



Antzerkia eta jazz musika bihar gauean, Gau Giro ekimenaren barruan

Kultura » 'Done Jakue erromeria' antzerkia izango da Plaza Berrian, eta Mikel Andueza eta Iñaki Salvador ariko dira Frontonen.

ERREDAKZIOA

Udako gauak alaitzeko helburua duen Gau Giro ekimenak bi proposamen ditu biharko. Bata, antzerkia, Done Jakue bidea gai bezala hartuta, eta bestea, jazz kontzertua Mikel Andueza eta Iñaki Salvadorren eskutik.

Masca Teatro-Aula taldeak *Done Jakue erromeria* (Romeria a Santiago) antzezlan eskainiko du Plaza Berrian, 20:30etik aurrera. Kultur Oroitzapenen Estatuko Erakundearen (SECC) eskutik datorrigun jarduerak da. Aurten Xakobeko urtea izanik, gai hori duten hainbat kultur ekintza ari dira antolatzen Done Jakue bidea igarotzen den lurraldeetatik, eta horregatik, gurean ere izango du tartea.

Mexikoko Unibertsitate Autonomoko literatura dramatikoko eta antzerkiko ikasleek eta Arte Ederretako Institutuko ikasleek osatzen dute Masca Teatro-Aula taldea. Edith Checa eta Gabriel Silvaren lan honetan historian zehar Santiagoko Katedralerako erromesaldiak nola izan diren irudikatu eta erromes batentzat Done Jakue bidea duen esanahia azalduko dute.

Hori guztia kale antzerkiaren bidez egingo dute, «Erdi Aroko maskaradak eta inauteriak irudikatuz». Elkarrizketak baino, ekintzak gailenduko dira antzezlan ho-



Duela bost urte, Gau Giro ekimenaren barruan, Gonzalo Tejada Special Trio aritu zen Fronton kafetegian: Iñaki Salvador pianoan, Gonzalo Tejada kontrabaxuan eta Mikel Andueza saxoetan. JOXEMI SAIZAR

netan, zuzeneko musikarekin eta erromesaldien ohiko festa giroarekin.

Jazz kontzertua Frontonen

Plaza Berriko antzerkiaren ostean, 23:00etan, Fronton kafetegian jazz musika izango da Mikel Andueza eta Iñaki Salvadorren eskutik. Egungo jazz musikaririk ezagunenetakoak dira, eta talde desberdinetan kide izan ostean, eskutik datozkigu orain.

Egitaraia beraiek sortutako musikarekin, klasiko zaharrek eta gaurko abesti ezagunekin osatu dute. Horien artean, Sting-en *Fragile*, Mikel Laboaren *Txoria Txori* edota Cole Porterren kantak izango dira entzungai.

Ibilbide luzeko eta ospe handiko musikariak dira, eta topaketa minimalista honetan euren ikuspegi pertsonala ezartzen diote jazz musikari, etiketa horren gainetik beste estilo batzuetan ere murgilduz.



Masca Teatro-Aula taldeko kideak ariko dira bihar. HITZA

» EGITARAUA

Antzerkia

■ **'Romeria a Santiago'**. Masca Teatro-Aula taldea. Santiago de Compostelarako erromesaldiak historian zehar irudikatzen ditu.

■ **Noiz eta non**. Bihar, 20:30ean Plaza Berrian.

Musika

■ **Mikel Andueza eta Iñaki Salvador**. Jazz kontzertua saxo-jotzailearen eta piano-jolearen eskutik.

■ **Noiz eta non**. Bihar, 23:00etatik aurrera, Fronton kafetegian.

Futbola, etzi, Bonbereneako zelaian

Kirola » Zortzi talde ariko dira lehian, goizean hasi eta iluntzera arte; aurten bosgarren urtez antolatuko dute Futbol Txapelketa.

ERREDAKZIOA

Kultur ekitaldiak ez ezik kirol jarduerak ere antolatzen dituzte Bonberenean, eta horren adibide, etzi bertako futbol zelaia hartuko duen Bonbereneako V. Futbol



Egun osoan zehar izango dira partidak, etzi, Bonberenean. A. IMAZ

Txapelketa. 09:00etan hasiko dira, eta egun osoan partidak jokatu eta gero, iluntzera izango da finala.

Aurtengo Txapelketa zortzi taldek hartuko dute parte: Bonbe-

ro, Bonberenea Txaranga, Muelambo, Co & Paly, Azkarrak, Oargi, Makabidelebantar eta Sanblaspioko. Azken hori da, hain zuzen ere, pasa den urteko txapelketa.

L Laburrak

Tolosa Kantariaren bigarren entsegua, hilaren 28an

MUSIKA • Tolosa Kantari ekimenak ez du etenik izango ez uztailean ez eta abuztuan ere, eta bi hilabete horietako azken larunbatean kantatu jira egingo dute Alde Zaharren zehar. Uztaileko lehen entsegua herenegun egin zuten, eta bigarrena hilaren 28an egingo dute, Kultur Etxean, 20:00etan hasita. Uztailekoan musikarekin lagunduko duten musikariak Udaberri dantza taldeko txistulari beterranoak izango dira.

Finalerdietarako sailkatze partidak Paleta Txapelketan

KIROLA • Tolosa CFren 42. Paleta Txapelketa ari dira jokatzeko egunotan Berazubiko frontoian. Ondorengoak dira azken emaitzak: Otermin-Urdanpilleta 30 Landa-Galarraga 18; Lontxo-Nazabal 30 Mendigain-Sanchez 16; Balerdi-Agirre 30 Agirre Zelaia 15; Apeztegia-Maiza 30 Mendigain-Sanchez 15; Lontxo-Nazabal 30 Karrera-Izagirre 17; Yugueros-Aldazabal 30 Landa-Galarraga 20; eta Karrera-Izagirre 30 Zubillaga-Zabala 25.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larriald: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



HELDUENTZAKO TRESNAK ETA EUSKARAREN GARRANTZIA

Helduentzako kirol gunean bost tresna aurkitzen dira, gorputzaren atal guztiak lantzeko eta mantentze fisiko eta muskularra bermatzeko: «Biradera, sorbalda lantzeko; Horma-barrak, bizkarreko estiramenduak egiteko; Oin kulunkaria, zangoak lantzeko; Twist bikoitza, gerriarentzat; eta Sigi-saga, besoekin ariketak egiteko».

Tresna bakoitzean, panel bat aurkitzen da argibideekin, ariketak nola egin behar diren zehaztatuz. Jokin Bildarratz bera ohartu zen gaztelania hutsean zeudela eta ez zitzaion batere gustatu. Teknikariari agindu zehatza eman zien: «Aldatu gaur bertan».

Lizardi plaza edo 'Patinen pista' berria gazteen eta helduen topaleku izatea nahi du Tolosako Udalak. A. IMAZ

Lizardi plaza gazte eta helduen topaleku izatea nahi du Udalak

Azpiegiturak » 'Patinen pista' berritua aurkeztu zuten atzo; kirol instalazio berriez gain, argitze sistema eta irisgarritasuna ere egokitu dituzte.

ASIER IMAZ

Tolosako udal ordezkariak atzo aurkeztu zituzten Lizardi plazan egindako berrikuntzak. *Patinen pista* bezala ezagutzen den gunea, gazte eta helduen topaleku bilakatu nahi du Udalak. Bi belaunaldi hauen uztarrria kirola izango da eta berrikuntza lanen ardatza, ondorioz, kirol azpiegiturak izan dira.

Horretaz gain, argiztatze sistema ere aldatu dute; «bizilagunek horrela eskatu dutelako». Farola berriak jarri dituzte Lizardi plazan.

Aurrera begira, Gudari kalearen itsura hobetzeko asmoa azaldu zuen Jokin Bildarratzek. Lan hori burutzen bost langile egongo direla ere aurreratu zuen Tolosako alkateak. Zumalakarregi kaleari dagokionez, autoak zezen-plazarako noranzkoan joango dira, hau da,

egun duenaren aurkako zentzua izango du bertatik igarotzen den errepideak.

«104.628 euroko inbertsioa»

Jokin Bildarratzekin batera, Jokin Azkue, hirigintza zinegotzia, Oscar Renedo, Kirol zinegotzia, eta hainbat udal teknikari elkartu ziren Lizardi plazan.

Alde batetik futbol, saskibaloia eta boleibol kantxak aurkeztu zituzten. Bestetik, helduentzat egokitu duten kirol eremua: «Gaurtik aurrera plaza berritu honetan aukera ugari egongo da kirol desberdinak eta ariketak egiteko. Izan ere, kirol askotako pista berriak aukera ematen du kirol modalitate desberdinak egiteko: futbola, saskibaloia, boleibola, etab. Kirol espazio berri bat da, gaztetxo eta helduentzat, 350 metro koadrotik go-



Udal ordezkariak kirol instalazioak atzean dituzte. A. IMAZ

rakoa, non tolosarrek aukera izango duten taldeko kirolak egiteko, hau da, adiskidetasuna, elkarlana eta kooperazioa sustatzen dituzten kirolak egiteko».

«Gainera, Udalak kirol gune bat diseinatu du bereziki helduentzat. Espazio horietan gimnasia egiteko tresnak daude jarrita, batez ere

edadetuentzat. Elementu horiek gorputzaren atal desberdinak lantzeko balio dute: zangoak, besoa, gerria, bizkarra, etab.».

Aipatzekoa da azkenik, Lizardi plazara sartzeko irisgarritasuna ere hobetu egin duela Udalak. Ondorioz, Gudari kaletik *Patinen pista*ko espaloiara joateko, orain ez

dago lehen bezala koskarik igotzeko beharrik.

Lan guzti hauen kostua, hau da, inbertsio osoa, «104.628 eurokoa» izan dela argitu zuten udal ordezkariak. Diru honekin zoladura, kanalizazio, argitze, irisgarritasun eta kirol instalazio lanak burutu dituzte.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Baseria edo borda.** Eskualdean baseri edo borda bat alokatuko genduke. Interesatuek deitu ondorengo telefono zenbakira: 634 45 9110.

SALGAI

■ **Arropak.** Bizikletan ibiltzeko arropak salgai (kamisetak, kulotak, txaketak...) Euskaltel markakoak. Oso berriak. XXL neurrikoak. 637 94 8012.

Gidariak behar dira dokumentazioa eta baliagatzen. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenuerako langileak behar dira. Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40



Irrintzi elkarteko kideak 14. Garagardo Azokako azken lanak egiten aritu ziren. Aurtengo kartelarekin argazkia ateratzeko tartea hartu zuten. E. MAIZ

12.000 litro garagardo prest daude egarri direnen zintzurak bustitzeko

Villabona » 14. Garagardo Azokak gaur 18:00etan zabalduko ditu atek. Igandera bitarte, 4 egunez jan-edanik ez da faltako.

ERREDAKZIOA

Gaur hasi eta igandera bitarte Villabonako 14. Garagardo Azoka izango da. Egun oso zabalduak daude azoka mota hauek baina, Irrintzi elkarteak antolatzen duena, Gipuzkoako Garagardo Azokarik zaharrena da. Aurtengoa, 14. urtez jarraian antolatuta dute.

Urteroko bideari jarraituz, lau egunez izango ditu atek zabalik: gaurtik hasi eta igandera arte. Ostegunetik eta larunbatean, 18:00etatik 01:00etara izango da zabalik eta ostiralean eta larunbatean, 18:00etan hasi eta 02:30ak arte.

Txermingo Ikastolako jolaslekuan dute tokia eta atzo, azken prestaketa lanak egiten ari ziren antolatzaileak.

900 lagunentzako lekua

Hamalau urte daramatza Garagardo azoka antolatzen Agustin Laskurainek. Astebete da muntai lanekin hasi zirela eta guztialotzen maiztaren erdi aldera hasi zirela kontatu digu. 900 lagunentzako adina eserleku prestatzen dituzte eta ia ez esaterako, 2.750 ukondo

eman zituzten. Lau egun hauetan, 100 lagun inguru ibiliko dira lanean: bazkideak, lagunak, senar edo emazteak... bakoitzak bere ardurak zein diren garbi-garbi dituela adierazi du Agustin Laskurainek.

Iazkoa baloratu ostean, aurtengoa ez dute zeliakoentzako menua eta edatekorik ekarri.

Garagardoazaleek, Irrintzi elkartearen eskutik, urteroko zita izango dute gaurtik aurrera Villabonan. Bertan garagardo ezberdinak dastatzeaz gain, ederki jateko aukera ere izango da.

Irrintzi elkartearen iaz izan zuten sutea dela eta, ateratako dirua, Elkartearentzat izango da.

» VILLABONAKO 14. GARAGARDO AZOKA

- **Noiz.** Gaur ireki eta igandera bitarte.
- **Ordutegia.** Gaur eta igandean, 18:00etatik, 01:00era. Ostiralean eta larunbatean, 18:00etatik, 02:30era.
- **Non.** Txermingo Ikastolako jolaslekuan.

Garagardoak

- **Guinness.**
- **Grimbergen Dubbel eta Cuvee de L'Ermitage.**
- **San Miguel Especial, 1516, Selecta eta 0,0%.**

- **Desperados.**
- **Mort Subite.**
- **Murphy's Irish Red.**
- **Calsberg.**
- **Kronenbourg 1664.**
- **Judas.**
- **Affligem Blond, Dubbel eta Tripel.**
- **Paulaner Salvator, horia eta gariarekin egindakoa.**
- **Foster's.**
- **New Castle.**
- **Tetley's.**
- **Carling.**
- **Clara.**

Jatekoak

- **Frankfurt eta Bratwurst saltxitxak.**
- **Gulak. (Baratzuri erara, ganba eta perretxikoeekin)**
- **Entsalada alemaniarra.**
- **Patatak Navarrito erara.**
- **Ukondoa.**
- **Olagarroa.**
- **Langostinoak baratzuri erara.**

Postrea

- **Idiazabalgo gazta tarta.**
- **Sagardo tarta.**
- **Alustizako gazta.**

VII. Transernio Txapelketako hirugarren kanporaketak jokatu dira

Aduna » Bihar 18:00etan eta larunbatean 11:00etan hasiko dira jokatu beharreko sei pilota partidak.

ERREDAKZIOA

Duelabi aste hasi ziren lehen partidak eta dagoeneko hirugarren kanporaketako jokatu dituzte bihar eta etzi. VII. Transernio Txapelketako bigarren kanporaketa jokatu zen pasa den astean eta Bidegoianeko hiru bikotek eta Villabonako Andoain eta Hernaniko beste bikote banak lortu zuten aurrera jarraitzeko txartela.

Bigarren kanporaketako emaitzak

Ostiralean jokatu zen alebiren partidetan, Andoainek 16 eta Adunak 5 eta Bidegoianek 16 eta Adunak 9 egin zuten. Honenbestez, herriko bikoteek ezingo dute aurrera jarraitu Txapelketan. Eta infantilen partidetan, Villabonak 6 tanto eta Bidegoianek 18 egin zituzten.

Larunbatekoek honako emaitzak utzi zituzten. Benjaminetan, Andoainek 5 tanto eta Villabonak 16 eta kadeteetan, Usurbilek 5 eta Bidegoianek 22 eta Hernanik 22 eta Lasartek 10 egin zuten.

Aste honetako partidak

Ohi bezala, bihar eta larunbatean jokatuko dira partida guztiak. Egun bakoitzean hiru izango dira. Ostiralean, alebin eta infantil mailakoak eta larunbatean, benjamin eta kadeteenak.

Bihar 18:00etan hasiko dira eta lehen partidua, benjaminena izango da, Añorga eta Adunaren artekoa hain zuzen ere. Eta infantiletan bi partida jokatuko dira, Hernani Zizurkilen aurka eta Andoain Añorgaren aurka lehiatuko dira.

Larunbatean, benjamin eta kadeteen txanda izango da. Benjaminen partida, Añorga eta Usurbilek jokatuko dute. Eta kadeteetan, alde batetik, Andoain Villabonaren aurka eta bestetik, Amezketako Añorgaren aurka ariko dira.



TXOKOA HITZA



sarituak

Gaurko irabazlea:
Eusebi Etxebeste Amundarain (Ibarra)

Afaria jasotzeko, Azokako txarteldegira hurbildu harpidedun txartelarekin.

sarrerak eskuratzeko deitu 943-65 56 95 telefono zenbakira



Karmen jaietako txupinazo ofiziala izango da gaur

Alegia» Atzo eman zitzaizen hasiera jai alternatiboiei, eta gaur festa ofizialen txanda izango da.

Gaurko ere, egitarau zabalada dute prestatua alternatiboek zein ofizialek, behean ikusgai dagoena.

Urtero bezala, Karmen jaietako ofiziala emateko, txintxarriaren igoera egingo dute udaltxeko plazan.

OIHANA IGUARAN

Atzo, asteazkena, Alegiako 25. festa alternatiboan hasiera ekitaldia egin zen, sagardo dastaketarekin girotu zena. Jarraian zahagiardoa egin zen, eta trikitixaz gozatzeko aukera ere izan zuten herritarrek gauean zehar.

Autobus geltokiaren aldaketa

Festak direla medio, Tolosaldeko autobusak soilik Larraitx auzoko geltokian geratuko direla adierazi du festa batzordeak. Beraz, Karmen jaiak amaitu arte, igandera arte, Larraitx auzoan hartu behar-ko dira autobusak.



laz ere apar festak arrakasta izan zuen haurren artean. ESTI EZBZA

» EGITARAUA

JAI OFIZIALAK

Gaur, hilak 15.

- **9:00.** Jubilatuek antolatutako mendi martxa.
- **10:00-14:00.** Haur perkea eskolako atarian.
- **13:00.** Apar festa.
- **11:00.** Jubilatuentzat hamaiketako.
- **14:00.** Haurren bazkari herrikoia plazan.
- **15:30.** Haurrentzat baserriko jokoak Kulki taldearen eskutik, eskola atarian.
- **18:30.** Kartel lehiaketan parte hartu dutenen erakusketa udaltxeko arkupean.
- **18:30.** Ordiziako erraldoi eta buruhandien kalejira Larraitx auzotik plazaraino.
- **19:00.** Euskal Presoak Euskal

Herrira lelopean elkarretaratzea plazan.

- **19:00.** Txupinazoa eta Txintxarriaren igoera, Txintxarri eta Txintxarri Txiki abesbatzen eskutik.
- **19:30.** Itzel taldearekin trikitixa plazan
- **21:00.** Zahagiardoa herriko plazan.
- **22:30.** Bertolariak Kultur Etxe-an: Maialen Lujanbio, Unai Agirre, Aitor Mendiluze eta Jexux Mari Irazu. Gai-jartzailea: Iker Iriarte.
- **23:30.** Itzel taldearekin dantzaldia.

JAI ALTERNATIBOAK

Gaur, hilak 15.

- **Iluntzean.** Zagiardoa.
- **Gauean.** Kontzertuak bulebarrean: Keiren, Kozka, Ziklox eta Manilares Iturriaga taldeen eskutik.



Ordiziako erraldoi eta buruhandien kalejira. NEREA URBIJA



Eresargi abesbatza, eguberri bezperako kantu-kalejiran. HITZA

Eresargi abesbatzak 25 urte beteko ditu

Villabona» Urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatuta dituzte, festetako txupinazoa eta kontzertu berezia adibidez.

nela, abesbatzaren jarraipena bermatuko zuen Eresargi Txiki abesbatza sortu zuten. Azken honek ere, ibilbide polita darama, eta urteurrenak betetzen jarraitzekotan dira biak ala biak.

motan zebiltzala, eta Mikel Urdangarinek emanaldi bat prestatzea otu zitzaiera. Gainera, «ideia proposatu orduko bere prestutasuna agertu zuen» abeslari ezagunak. Emanaldi berezia izango da beraz, hilaren 26an Eresargik eskainiko duena, non Urdangarinen abestiak abesbatzarenekin nahastuko diren.

Herriko festetatik hasita beraz, abesbatzarekin ezkontzen dituen zilarrezko ezteiak ospatuko dituzte, baina ahaztu gabe Eresargi eguberri bezpera batean sortu zela. Ondorioz, gabonetan beteko da zehazki urteurrena, eta orduan ere ospatzeko prest agertu dira Eresargiko kideak. Momentuz, festetan ospatuko dute.

OIHANA IGUARAN

Duela 25 urteko argazkia izan zitekeen goikoa, horrelaxe sortu baitzen aurretan 25 urte beteko dituen Eresargi abesbatza. Izan ere, «eguberri bezperaz abestera ateratzeko deialdi herrikoia egin zen» gaur egun abesbatzako zuzendari den Sofia Quilezek azaldu duenez. «Herritarren erantzun baikorra ikusirik, biltzen hasi eta egun hori jarraipena ematea erabaki zen».

Horiek izan ziren geroztik Villabona doinuz bete duen abesbatza ren lehen pausuak. Hamaika kontzertu eskaini dituzte ordutik, eta lehiaketetan parte hartzeraz ere animatu dira.

Baina urteak ez dira alferrik igaro, eta denborarekin abesbatza asko aldatu dela aitortu du Sofia Quilezek, «heltzen joangara, eta ez adinez bakarrik, baita musikalki ere». Honela, asko ikasteko aukera izan dute urte hauetan, eta eraguztietako abestiak kantatzen dituzte gaur egun, folklorikoetatik hasi, eta atzeritar zein modernoetaraino. «Oso ibilbide positiboa» izan dela azpimarratu du zuzendariak, eta errepertorioa asko aberastu dutela urteetan zehar.

Nolako enborra, halako espala

Helduen abesbatzaren arrakasta ikusirik, ondorengoei ere aukera hori eman nahi izan zitzaizen. Ho-

Urteurrena ospatuz

Santio jaien atarian, lanpetuta dabil abesbatza, urteurrena ospatzeko prestakizunekin. Izan ere, aurretan euren izango dute hilaren 24ko txupinazoa botatzeko, eta festei hasiera emateko ardura.

Gainera, festetan urtero eskaintzen duten kontzertuan gonbidatu berezi baten parte hartzea izango dute aurretan, Mikel Urdangarinena hain zuten. Sofia Quilezek azaldu du kontzertu berezia egiteko as-

informazioa

h

HITZAren harpidedun egiteko:

902-82 02 01

hitza@harpidetza.info

i

egunkaria buzoian, zozketak eta deskontuak, promozioetan abantailak,...

HITZAri buruzko informazioa

JOXEMI SAIZAR

Ikasturte hasieran kanturako zale-
tasuna zutenak elkartu ziren Abal-
tzisketan, ikasten hasi irakasle ba-
tekin eta Sanjoanetan kontzertu
bat eskaini zuten herriaren aurre-
an. «Zeinek esango luke hasie-
ran?», dio kide batek. Meritu han-
dia dutela onartu behar da, hain
herri txikian horrelako abestalde
bat osatu dutelako. Badirudi beti-
danik euskaldunok kanturako du-
gun gogo hori bideratzen ari dela.
Eskualdean ditugun abesbatzen
gain, gehienak herri handienetan,
kantuarainko gozatzen duten talde-
ak ere ari dira sortzen. Azkenal-
dian horren adibideak ikus
ahal izan dituzue **HITZAN**: Alkiza
eta Ibarra. Abaltzisketako kausa
azaltzera gatzokizue oraingoan.

Abiapuntua Abaltzisketako
Udalak eskaintzen dituen ikasta-
roetan dago. Pilates edo eskulanak
egiten dituzten bezala, kantuan
aritzeko aukera sortu zen. Aurre-
ko ikasturtean ere aritu ziren hel-
du eta haur batzuk Idoia Iraola to-
losarrarekin, Txintxarri Txiki
abesbatzaren zuzendaria dena.
Aurten berriz egin zuten eskaintza
eta hamar emakume animatu zi-
ren, gehienak aurreko urtean ere
aritutakoak. Gizonetakoak biltzeko
arazoak izaten dituzte horrelako
talde gehienek. Herritarrek dira
partaide gehienak, baina Amezke-
ta eta Orendaingoak ere badira tar-
tean. Beasainen bizi den Marian
Garcia-Gango madrildarra izan da
ikastaroaren irakaslea, Alegria-
Dulantziko Aiala abesbatzaren zu-
zendaria eta beste talde batzuetan
kantuan eta irakasten aritzen
dena. «Oso gustura» daude talde-
kideak irakasleak egindako lana-
rekin: abeslariak hiru ahotsetan
saikatu, arnasketa eta teknika ira-
katsi, beroketa egin, euskal kantak
aukeratu, entseguak egin... «Hasie-
rian ariketa horiek txorakeriak
iruditzen zitzaizkigun, baina gero
konturatu gara beharrezkoak di-
rela eta hobeto ateratzen dela», dio
abeslari batek. Kanta berria entse-
atzen hasten direnean kostatzen
dela aitortzen dute. Edo beraien
erara ikasitako kantak ahotsetara



Abaltzisketako abestaldeak San Joan egunean meza nagusiaren ondoren eman zuten kontzertuan kantatzen Marian Garcia-Gangoren zuzendaritzapean. **HITZA**

Urte osoan entseatzeko aritu ondoren, Sanjoanetan bere lehen kontzertua
eskaini zuten Abaltzisketako abestaldeak; Udalak antolatutako ikastaroan
herriko hamar emakume elkartu ziren eta jarraitzeko asmotan dira.

Kantuzaletasuna ageri

kantatzen, «ohitura txarrak hartu-
ta gaudelako».

Herritarren harrera ona

Horretarako esan behar da espe-
rientzia gutxi dutela mundu hone-
tan: abesteko zaletasuna bai, baina
lagunartean, ez jendaurrean. Mu-
sika ikasketak aldetik ere ez dute so-
beran. Orain ari dira Marian Gar-
cia-Gangorekin partitura irakur-
tzen ikasten. Astean behin biltzen
dira Kultur Etxean, Apaiz Etxean

edo elizan, libre dagoen tokian, eta
kantuan aritzen dira. Lehen emal-
dian Gabonetan egiteko zirikatuz
zuten zuzendariak, baina ez zuten
lortu, «oso berde» zeudelako, be-
raien esanetan. Sanjoanetarako
berritri saiatu zen eta oraingoan
bai, lortu zuten. San Joan eguneko
meza nagusiaren ondoan han
agertu ziren taldeko guztiak zuriz
jantzita eta sei kanta eskaini zituz-
ten hiru ahotsetara herritarren au-
rrean: *Azken dantza*, *Erribera*, *Al-*

dapeko sagarraren, *Sambale*... En-
tzuleek txalo ugari eskaini zizkie-
ten eta beraiek oso gustura gelditu
ziren, «hankak dardarka» eduki
ondoren «lasaitu ederra» hartuta.
Zuzendaria ere kontent gelditu
omen zen hain denbora gutxian
lortutakoarekin.

Zailena egin dute: hastea eta le-
hen kontzertua ematea. Badakigu
zenbat kostatzen den horrelako
proiektu bat aurrera ateratzea. Are
gehiago Abaltzisketa bezalako he-

**Irakaslea eta zuzendaria
Marian Garcia-Gango
madrildarra dute, Aiala
abesbatzako zuzendaria**

**Udalak eskaintzen dituen
ikastaroetan sortu da
taldea; 2. urtez aritu dira
kantuan ikasten**

rritri txiki batean. Abesbatza deitzea
gehiegi esatea dela diote. Izenik
ere ez diote jarri. Garrantzitsuena
da kantua inguruan biltzen di-
rela eta ondo pasatzen dutela,
«nahiko barre eginez».

Aurrera jarraitzeko asmotan
dira partaide gehienak eta seguru
izango dugula beraien berri aurre-
rantzean ere.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN** agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitz.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Behe solairuak etxebizitza bilakatzeko aukera emango du Udalak

Amezketak » Udalak helburu horrekin proposatutako arau aldaketa onartzea erabaki du Foru Aldundiak.

ERREDAKZIOA

Amezketako Udalak eraikinetako behe solairuak etxebizitza bihurtzeko eta erabiltzeko baimena emango duela iragarri du Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Aukera hori herriko lurzorua osora egokitzen da, Fernando Amezketarra plazaren pareko lokaletara izan ezik.

Eneko Goia foru bozeramaileak adierazi duenez, «Amezketako Udalak eskatuta, uztailearen 13ko

Diputatuen Kontseiluan, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu du herriko Hiri Antolaketako Arauen lehen Aldaketa Puntuala etxebizitza horiek eraikitzeko».

Horrela, «eraikinetako behe solairuetan etxebizitzak prestatzeko babes ofizialeko erregimenen bat bete beharko da», gaineratu du Goiak.

San Bartolome kaleko lursail baten kalifikazio aldaketa

Era berean, hirigintza aldaketak San Bartolome kalean kokatutako etxebizitzetarako lursail baten kalifikazio aldaketa ere jasotzen du, horrela «lursaila komunitateko ekipamendura zuzentzeko».

Helburua da etorkizunean zentro balioaniztun bat ezartzea osatzen



Fernando Amezketarra plazaren pareko lokalak ezingo dira etxebizitza bihurtu. N. URBIZU

sun, laguntza eta kultur erabilere-tarako eta honen izena Juan Lopez enea edo Aierbe enea izatea aurreikusitako diru-laguntza emango du Foru Aldundiak.

Halaber, teiltapeko solairuak etxebizitza independente gisa prestatzea ahalbidetuko dute, berheragoko etxebizitzatik bereizteko.

UEUren zein euskara ikastaroetarako diru-laguntzak emango dituzte

Zizurkil » Herrian erroldatuta dauden herritarrei zuzendutako laguntzak dira.

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Udalak euskararekin zerikusia duten ikastaroak egiteko diru-laguntzak ematea aurreikusitako da. Batetik, euskara ikastaroak lagunduko dituzte herrian erroldatuta dauden artean, hauek ikastaroaren amaieran %85eko asistentzia bermatzen badute, behintzat. Matrikularen %75a ahal izango du eskatzaileak. Bestetik, Udako Euskal Unibertsitateak antolatzen dituen ikastaroetara jotzen direnei ere diru-laguntzak emango dizkiete. Erroldatuta egon beharko dute eskatzaileak.

Informazio gehiagorako Euskara Zerbitzura deitu daiteke, 943-69 24 95 zenbakira.

Asis Sarearen otoitzaldia, hilaren 29an

Tolosa » Hilero egiten duten otoitzaldi bilkura Klarisen komentuan izango da 19:30etik aurrera.

ERREDAKZIOA

Asis Sareak azaldu duenez hilero-ko otoitzaldi bilkura hilaren 29an izango da.

Hitzordua Tolosako Klarisen komentuan izango da 19:30etik aurrera.

Arantzazuko Asis Sarea jada

1.850 lagun inguruk osatzen dute eta hauen nahia «neurri batean edo bestean beren bilatze-bide pertsonalaren edo eguneroko fedearen bizipenean laguntza gisa espiritualtasun frantziskotarraren balioaren intuizioa dutenekin bide zabala eta plurala jorratzea» da, Sareko arduradunek esandakoa- ren arabera.

Informazio gehiagorako asissarea@arantzazu.org helbide elektronikora idazteko eta www.asis-sarea.org webgunean sartzeko gonbita luzatu diete herritar guztiei.

Diru-laguntzak eskatzeko epea

ERREDAKZIOA

Ibarrako Udaleko Kirol Batzordeak argitu duenez, hilaren 31n bukatu da 2010 urterako diru-laguntzak eskatzeko epea. Herriko kirol

elkarte, bestelako elkarte eta kirolari-entzako zuzendutako diru-laguntzak dira eta eskaerak egiteko edo informazio gehiagorako, Ibarrako udal-letxera joan behar da.

Lehen: 31,53 €
Orain: 25,22 €

Lehen: 19,83 €
Orain: 15,86 €

Lehen: 66,12 €
Orain: 52,9 €

% 20

Lehen: 28,48 €
Orain: 22,78 €

Lehen: 57,17 €
Orain: 45,74 €

Lehen: 28,48 €
Orain: 22,78 €

% 20

Euskal Herriko Plaza orrialdea

EHkoPLAZA

www.euskalherrikoPlaza.com

Beti alai
jatekoa

Garaian
garaiko janariak
Arraikietan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetaidea: 687 410 022. anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizalde: 687 410 118. leizalde@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko ideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Lanak amaituta, jolasteko garaia da

ALBIZTUR • Eskolako lanak amaituta, udan ere asperetzeko betarik ez dute haurrek. Herri gehienetan jarri dituzte martxan, urtero bezala, ludotekak. Baita Albizturren ere. Hemen 18 haur ari dira parte hartzen begi-

raleek antolatutako ekintzetan. Atzokoan jolasak botkatzen ziren. Hala, altxorrenen bila nahiz bonba bezalako jokoetan ibili ziren. Gaur berriz, ur jolasak izango dituzte, eta etzi igerilekura iteera. ESTI EZBIZA

A Agenda

Azoka

■ **Villabona.** 14. Garagardo Azoka Txerminen, 18:00etatik 01:00etara. Antolatzailea: Irrintzi K.E.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Alpeetako Jungfrau (4.158 m) eta Monch (4.099 m) mendietara irteera antolatu du Oargi elkarteak abuztuaren 14tik 22ra. Informazioa: www.oargi.org.

■ **Zizurkil.** Elizpe jubilatuko elkarteak Amurriora irteera antolatu du hilaren 21erako, Gasteiz ere bisitatuz. Izen-ematea, elkartearen. 28 euro.
■ **Tolosa.** Alturriza jubilatuko elkarteak Garaioa (Araba) irteera antolatu du abuztuaren 6rako. Informazioa, elkartearen (Euskal Herria plaza).

Jaiak

■ **Alegia.** Karmen jaiak: 09:00etan jubilatuen mendi martxa; 10:00etatik 14:00etara haur parkea eskolako atarian; 13:00etan Apar Festa; 11:00etan jubilatuentzat hamaiketako; 14:00etan haurren bazkari herrikoia plaza; 15:30ean umeentzat baserriko jokoak Kulki taldearen eskutik eskola atarian; 18:30ean kartel lehiaketako marrazkien erakusketa udaltxeko arkupetan; 18:30ean Ordiziako erraldoi eta buruhandiak eta Giroarte dultzaina taldearekin kalejira Larraitz auzotik plazara; 19:00etan Euskal Presoak Euskal Herrira lelopean elkarretaratzea plaza; 19:00etan txupinazoa eta Txintxarriaren iguera, Txintxarri eta Txintxarri Txiki

abesbatzen eskutik; 19:30ean Itzel taldearekin trikitixa plaza; 21:00etan zahagiardoa herriko plaza; 22:30ean Kultur Etxean Maialen Lujanbio, Unai Agirre, Aitor Mendiluze eta Jexux Mari Irazu bertsolariak (gai-jartzailea: Iker Iriarte); 23:30ean Itzel taldea.
■ **Alegia.** Jai alternatiboak: iluntzean zahagiardoa; gauean Keiren, Kozka, Zikloz eta Manilares Iturriaga taldeen kontzertuak.

Zinema

■ **Tolosa.** *Honeymoons* filma, jatorrizko bertsioan, Leidor aretoan 21:00etan, zine-forumean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak
ezkontzak - jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

Lizartza

Etxebizitza libre beten ebantaila gurtiak, baita saltzeko eskatasuna ere; zozkoben zain egon gabe eta kalitateko akaberekin, etxebizitza tasatu beten prezioan.

Etxebizitza libreak tasatuen prezioan

- Hiru logela, garajea, trasterokua, terraza
- 198.334€ +I.E.Z. (39.000.000 ptoe+I.E.Z.)
- Logelak, egongelak eta sukaldereko erabateko karpasidokak
- Finantzaketa erretasunak
- Inbertsio libaina
- 2010eko abuztuaren 6a baino lehenago egindako erretasunak sukaldereko sarrerak mantaturik jasoko dituzte

636 666 147 Leizartza, Leizartza, Tolosa
948 175 709 Leizartza, Leizartza, Tolosa

LURRA

Lagundu Udaltzaren kontrako epaiketaren gastuei aurre egiten

DENON ARTAN GIBETZEN ASKE!

EUSKAL HERRIA

Bai

3035 0071 63 0711 24600